

UPV/EHUKO ARABAKO CAMPUSEKO LASCARAY IKERGUNEKO IKERKETARAKO ESPazioAK ALDI BATERAKO ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

BASES DE LA CONVOCATORIA PARA LA ADJUDICACIÓN TEMPORAL DE UN ESPACIO DE INVESTIGACIÓN EN EL CENTRO DE INVESTIGACIÓN LASCARAY IKERGUNE DEL CAMPUS DE ÁLAVA DE LA UPV/EHU.

Lehenengoa.- Deialdiaren helburua

Lascaray ikerguneoko ikerketa espazio bat aldi baterako esleitzea.

Primera.- Objeto de la convocatoria

El objeto de esta convocatoria es posibilitar la adjudicación temporal de un espacio de investigación en el Centro de Investigación Lascaray Ikergunea.

Bigarrena.- Onuradunak

- Biozientzien eta osasun zientzien arloetako Arabako Campuseko ikertaldeetako ikertzaile nagusiak. Ikertaldeok izan behar dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2010eko apirilaren 22ko Erabakiaren bidez eta 2013ko martxoaren 13ko Erabakiaren bidez onarpena lortu zutenak (erabakion bitartez euskal unibertsitate sistemako ikertaldeentzako jarduerak sustatzeko laguntzak eman ziren).

- Arlo horietako itzal handiko Ikerbasque Fundazioako ikertaldeetako ikertzaile nagusiak (Ikerbasque Research Professors), UPV/EHUri atxikita daudenak UPV/EHUK eta Ikerbasque Fundazioak 2010eko ekainaren 4an egindako lankidetzaren hitzarmenaren bidez.

Ezin dira aurkeztu Arabako Campuseko Errektoreordetzaren aurreko deialdietan Lascaray ikergunean espazioaren bat esleitu zaien ikertzaileak, ez eta Ikerbasque Fundazioarekiko hitzarmenaren babesean lehendik espazioaren bat esleitura daukaten Ikerbasque ikertzaileak ere.

Hirugarrena.- Bete beharreko baldintzak eta esleipenaren ezaugarriak

3.1. Esleitu beharreko espazioak 70m²-ko azalera dauka eta ikerketarako oinarritzeko altzariak, tartean gasak erauzteko bitrina bat.

Segunda.- Personas beneficiarias

- Los/las investigadores/as principales de los grupos reconocidos de investigación del Área de Biociencias y del Área de la Salud del Campus de Álava de acuerdo con las Resoluciones de 22 de abril de 2010 y de 13 de marzo de 2013 del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, por la que se adjudican las ayudas para apoyar las actividades de los grupos de investigación del sistema universitario vasco.

- Los/las investigadores/as principales de grupos de investigación de reconocido prestigio de la Fundación Ikerbasque (Ikerbasque Research Professors) de las citadas áreas de investigación y adscritos a la UPV/EHU por Convenio de Colaboración entre la Fundación Ikerbasque y la UPV/EHU de 4 de junio de 2010.

En ningún caso podrán ser beneficiarias las personas adjudicatarias de espacios en el Centro de Investigación Lascaray Ikergunea en virtud de convocatorias anteriores del Vicerrectorado del Campus de Álava, ni aquellas personas investigadoras Ikerbasques ubicadas previamente al amparo del citado convenio.

Tercera.- Requisitos, condiciones y características de la adjudicación

3.1. El espacio a adjudicar al grupo de investigación es de 70 m², estando el mismo equipado con amueblamiento básico para la investigación que incluye, entre otros, una vitrina de extracción de gases.

3.2. Altzari gehiago eta tresna gehiago behar izanez gero, edo egokitu behar bada espazioa ikertaldearen premietara, horren gastuak onuradunaren kontu joango dira.

Era berean, konpromiso formala hartu beharko du esleitutako espazioa hila beteko epean okupatzeko, Arabako Campuseko errektoreordearen erabakiaren jakinarazpena jasotzen duenetik. Bestela, galdu egingo du espazioa, eta puntuazio handiena daukan hurrengo eskatzaileari esleitu zaitzaio.

3.3. Ikertaldearen azpiegiturak Lascaia garraiatu eta bertan instalatzeko gastuak ikertaldearen kontu joango dira, campuseko errektoreordeak aurretik onartzen emanda.

3.4. Espazioa bakarrik erabili ahal izango da esleitu den helbururako, eta ezin izango zaio beste inori utzi, ez osorik ez zati bat.

3.5. Espazioarekin arazorik edo gorabeherarik gertatuz gero, esleipendunak horren berri eman beharko dio Arabako Campuseko Errektoreordetzari. Era berean, espazioan edo altzarietan egokitze lanik egin ahal izateko, campuseko errektoreordetzaren baimena eduki beharko du aldez aurretik.

3.6. Esleipendunak arduraz zaindu beharko du espazioa, bai bere taldeari esleitu zaiola eta bai espazio komunak ere. Edozelan ere, ondasunetan eta instalazioetan kalterik sortuz gero erabilera desegoki edo arduragabearen ondorioz, bera izango da erantzule.

Era berean, laneko segurtasun eta osasunari dagozkion arauak bete beharko ditu.

3.7. Ikertalde onartuei dagokienez, esleipena, hasteko, hiru urterako izango da B taldeen kasuan, eta 6 urterako A taldeen kasuan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak euskal unibertsitate sistemako ikertaldeentzako laguntzen deialdian egiten duen ebaluazioaren arabera.

3.2. La dotación de mobiliario extra y equipamiento específico para el desarrollo de las labores investigadoras, así como, en su caso, la adecuación del espacio a las necesidades de investigación del grupo correrá a cargo de la persona beneficiaria.

Asimismo, deberá comprometerse formalmente a ocupar el espacio adjudicado en un plazo de 1 mes a partir de la notificación de la resolución de adjudicación del Vicerrector del Campus de Álava. En caso contrario, decaerá en su derecho de adjudicatario del espacio, siendo asignado, en su caso, al siguiente solicitante que hubiera obtenido mayor puntuación.

3.3. Los gastos de traslado e instalación en el edificio de las infraestructuras del grupo de investigación correrá a su cargo, previo visto bueno del Vicerrectorado de Campus.

3.4. El uso destinado únicamente podrá ser destinado para el fin asignado, y no podrá ser cedido a terceros ni total ni parcialmente.

3.5. La persona adjudicataria del espacio deberá comunicar al Vicerrectorado de Campus de Álava cualquier anomalía, incidencia o problema que pueda surgir. Asimismo, para la realización de cualquier tipo de actuación tanto en el espacio cedido como en lo referente a los bienes muebles será necesaria la previa autorización expresa del Vicerrectorado del Campus.

3.6. La persona adjudicataria estará obligada a la conservación diligente del espacio asignado para uso individual así como de los de uso común. En cualquier caso, responderá de los daños y perjuicios que pudieran producirse, derivados de un uso o funcionamiento inadecuado o negligente de los bienes e instalaciones.

Igualmente, deberá cumplir las normas de uso y de seguridad y salud laboral aplicables

3.7. En lo que respecta a los grupos reconocidos de investigación, la duración de la adjudicación tiene, inicialmente, un plazo de 3 años para los grupos B y 6 años para los grupos A, de acuerdo con la evaluación que el Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura realice a través de la correspondiente convocatoria de ayudas a los grupos de investigación del sistema universitario vasco.

Ikertaldeko burua Ikerbasque Research Professor bat den taldeen kasuan, esleipena izango da ikertzaile horrek eta unibertsitateak UPV/EHUren eta Ikerbasque Fundazioaren arteko 2010eko ekainaren 4ko hitzarmenaren babesean egindako akordioan zehaztutakoa, baldin eta ikertzaileak Ikerbasque Research Professor izaten jarraitzen badu, eta hitzarmeneko sinatzaileek bestelako ebaluaziorik egiten ez badute.

3.8. Bestalde, esleipendunak bete beharko ditu UPV/EHUK onartuko duen UPV/EHUKo I+G guneen finantzazio eta kudeaketarako arautegia, ikergunearen beraren antolaketari dagozkion betebeharrak, eta kasuan aplikatu behar diren unibertsitateko gainerako arau guztiak.

Era berean, Ikerbasqueko ikertzaileei dagokienez, UPV/EHUren eta Ikerbasque Fundazioaren 2010eko ekainaren 10eko lankidetz hitzarmenean ezarritakoa bete beharko dute.

3.9. Esleipenaren epea amaitzean, espazioa Arabako Campuseko Errektoreordetzari itzuli beharko zaio jaso zen baldintza berberetan edo antzekoetan.

Laugarrena.- Eskariak aurkezteko era

4.1. Eskariak oinarri hauei erantsitako inprimaki arautuan egin behar dira (I. eranskina). Eskariak Arabako Campuseko errektoreordeari zuzenduko zaizkio eta Arabako Campuseko Errektoreordetzako Erregistro Orokorrean edo ikastegietako erregistro bulegoetan edo UPV/EHUKo beste edozein erregistro bulegotan aurkeztu ahal izango dira, bai eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean (38.4) jasotako beste edozein bide erabilita ere.

4.2. Eskariak aurkezteko epea 2015eko urtarrilaren 26an hasi eta 2015eko otsailaren 26an amaituko da, eguerdiko 13:00etan.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta ikusiko balitz zerbait falta dela edo akatsen bat dagoela, eskatzaileari hala jakinaraziko

En lo concerniente a los grupos de trabajo cuyo investigador/a principal sea Ikerbasque Research Professor, la duración de la adjudicación será como máximo la establecida en el acuerdo individualizado suscrito por dicho investigador/a y la Universidad al amparo del Convenio de 4 de junio de 2010 entre la UPV/EHU y la Fundación Ikerbasque, siempre que mantenga dicha condición y sin perjuicio de cualquier otra evaluación realizada por las entidades firmante del citado convenio.

3.8. Por otra parte, la adjudicataria del espacio deberá cumplir las obligaciones derivadas de la Normativa de Financiación y Gestión de los centros de I+D de la UPV/EHU que apruebe la UPV/EHU, así como las de organización del propio centro, y demás normativa universitaria que sea de aplicación.

Asimismo, en lo que al personal Ikerbasque se refiere, deberán ajustarse a lo establecido en el Convenio de Colaboración suscrito entre la UPV/EHU y la Fundación Ikerbasque el 4 de junio de 2010.

3.9. A la finalización de la adjudicación temporal del espacio, el mismo habrá de ser revertido al Vicerrectorado del Campus de Álava en las mismas o similares condiciones en que se haya recibido.

Cuarta.- Presentación de las solicitudes

4.1. Las solicitudes deberán realizarse en el impreso normalizado (Anexo 1) que acompaña a las presentes bases reguladoras. Estas solicitudes irán dirigidas al Vicerrector del Campus de Álava y podrán presentarse en las oficinas del Registro General del Vicerrectorado del Campus de Álava o de sus Centros, en el resto de Registros de la UPV/EHU, y en cualquiera de las formas previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

4.2. El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el 26 de enero de 2015 y finalizará el día 26 de febrero de 2015.

Si analizada la documentación presentado se observase que es incompleta o defectuosa, se

zaio, eta hamar egun balioduneko epea emango zaio falta dena aurkezteko edo akatsa zuzentzeko, eta esango zaio hala egin ezean eskaria bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta halaxe adieraziko dela erabaki baten bidez.

4.3 Eskaria ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatu beharko du, hau da, Arabako Campuseko kasuan kasuko ikastegiari atxikitako ikertalde onartuko ikertzaile nagusiak edo Ikerbasque Research Professorrak.

4.4 Eskariarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Espazio eskaria justifikatzeko memoria. Bertan aipatuko dira ikertaldearen bikaintasuna frogatzen duten datuak, hala nola argitalpenak, aktiboan dauzkaten proiektuak, eskatuta dauzkatenak eta abar.
- Ikertaldea osatzen duten eta ikergunera joango liratekeen pertsonen kopurua, eta bakoitzaren kategoria profesional eta akademikoa.
- Ikertaldeak ikergunera eramango lukeen tresneria zientifikoa inbentariagarria, eta, horren arabera, zelako inbertsioa ekarriko lukeen, gutxi gorabehera, ikertaldeak ikergunera.

Bosgarrena.- Eskarien ebaluazioa eta erabakia

5.1. Eskariak epaimahai batek ebaluatuko ditu. Osakide hauek izango ditu: Arabako Campuseko errektoreordea (epaimahaiko burua izango da), Ikerketako errektoreordea, Campusaren Garapenerako zuzendaria, Campuseko gerenteordea eta Lascaray Ikerguneko behin-behineko koordinazio organoko koordinatzailea.

5.2 Ebaluazio irizpideak:

- Taldearen kalitate zientifikoa (50 puntu)
- Ikertaldearen jarduerak bat etortzea ikergunearen misio eta ikuspegiarekin (30

requerirá al solicitante para que, en el plazo de 10 días hábiles, subsane la falta o acompañe la documentación necesaria, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución.

4.3. La solicitud deberá ir firmada por el/la profesor/a de la UPV/EHU adscrito en el centro correspondiente del Campus de Álava que sea el/la investigador/a principal del Grupo Reconocido de Investigación o Ikerbasque Research Professor.

4.4. La solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- Memoria justificativa de la solicitud de espacio, que incluirá evidencias de la calidad de excelencia investigadora del grupo, indicando para ello las publicaciones, los proyectos activos y solicitados, etc.
- Número de personas que componen el grupo y se trasladarían al centro, indicando categoría profesional y académica.
- Equipamiento científico (inventariable) que dispone el grupo y que, se trasladaría al Centro, indicando así la inversión (aproximada) que aportaría/incorporaría el grupo al Centro.

Quinta.- Evaluación de las solicitudes y resolución

5.1. La evaluación de las solicitudes se efectuará por una Comisión Evaluadora constituida por el Vicerrector de Campus de Álava, en calidad de presidente, por el Vicerrector de Investigación, la Directora de Desarrollo del Campus, la Vicegerente del Campus y la Coordinadora del Órgano de Coordinación Provisional del Centro de Investigación Lascaray Ikergunea.

5.2. Criterios de evaluación:

- La calidad científica del grupo (50 puntos)
- La adecuación de las labores investigadoras del grupo a la Misión y Visión del centro (30

puntu).

- Ikertaldearen eginkizunen programa eskatu duten espazioaren neurrikoa izatea (10 puntu).
- Ikertzaileak (I. motakoak: iraunkorrak; II. Motakoak: kontratatatuak, bekadunak barne) (5 puntu).
- Ikergunera eramango luketen tresneria zientifikoa (5 puntu).

5.3. Behin eskari guztiak ebaluatuta, epaimahaiak esleipen proposamena aurkeztuko dio Arabako Campuseko errektoreordeari, erabakia eman dezan. Erabakiak arrazoituak izango dira, eta interesatuei jakinaraziko zaizkie.

5.4 Deialdi hau bi hilabeteko epean ebatziko da, gehienez ere, eskariak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Seigarrena.- Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sor litezkeen zalantzak Arabako Campuseko Errektoreordetzak ebatziko ditu.

Zazpigarrena.- Errekurtsoak

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta beraren kontra aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari hilabeteko epean, erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi errekurtsua ere jar daiteke, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, administrazio auzietarako epaitegietan.

puntos).

- La adecuación del programa de actividades del grupo de investigación a la necesidad de espacios del grupo solicitante (10 puntos).
- El personal investigador (tipo I: plantilla permanente; y tipo II: plantilla contratada-incluyendo becarios/as) (5 puntos).
- El equipamiento científico que se trasladaría al Centro (5 puntos).

5.3. Una vez evaluadas las solicitudes, la Comisión Evaluadora elevará su propuesta de adjudicación al Vicerrector del Campus de Álava para su resolución. Las resoluciones, serán motivadas y notificadas a las personas interesadas.

5.4 La presente convocatoria será resuelta en el plazo máximo de 2 meses a partir de la fecha de vencimiento de la presentación de solicitudes.

Sexta.- Interpretación

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación de estas Bases será resuelta por el Vicerrectorado del Campus de Álava.

Séptima.- Recursos

Contra la presente Resolución, la cual agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación, ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo.

Javier Garaizar Candina

UPV/EHUko Arabako Campuseko errektoreordea/Vicerrector del Campus de Álava (UPV/EHU)

